

ZER EGIN DEZAKE ENTITATE BATEK AHOBIZIEI ETA BELARRIPRESTEI ERRAZTASUNAK EMATEKO?

“Entitatearen barruan Euskaraldia aurrera eramateko ardura har dezake. Entitateak 7 urrats eman behar ditu.

Eskatu erraztasunak zure lantokian, elkartean, udaletxean, dendetan... Hartu erabaki kolektiboak ohiturak aldatzeko.”



Lantegiek, establezimenduek, kolektiboek, ikastetxeek, instituzioek... edozein entitatek hizkuntza-berdintasuna bermatzeko erantzukizuna du. Euskaraldian belarriprest eta ahobiziei erraztasunak emateko aukera dute entitateek. Arigune bat badute aktiba dezakete, edo bestela norbanakoen biko harremanak sustatu. Horretarako, **7 pausu hauek jarraitu behar dituzte:**

- 1.- **Erabaki:** Hizkuntza-arauak aldatu nahi ditugu?
- 2.- **Diagnostikatu:** Arigune izan daitezkeen talderik badago?
- 3.- **Adostu:** Kideak ados daude ahobizi eta belarriprest izateko?
- 4.- **Entitateak izena eman:** Ariguneak eduki ala ez
- 5.- **Neurriak hartu** ariketa errazteko
- 6.- **Ariketa egin:** Azaroak 20-abenduak 4
- 7.- **Euskaraldia eta gero:** Ariguneak sortu, babestu eta aktibatu

7 URRATSAK JARRAITZEKO LAGUNTZA HEMEN

www.lautada.euskaraldia.eus/entitateak

Entitateentzat, izena emateko epea irekita dago, 2020ko uztaile arte.

BA AL DAGO ARIGUNERIK GURE LANTOKIAN, ELKARTEAN, ESTABLEZIMENDUAN...?

Ariguneetan **belarriprest** eta **ahobizi** izatea askoz **errazagoa da**. Elkarteek, lantegiek, establezimenduek, ikastetxeek edota instituzioek sustatu behar dute arigunea, talde horren kideen adostasunarekin, erabaki kolektiboa hartuta.

ZER DA ARIGUNEA?

Euskaraz lasai aritzeko guneak dira. **Entitatearen funtzionamenduan dagoeneko eratuta dauden taldeak edo espazioak dira**, eta hizkuntza-praktikak euskarara aldatzea edo finkatzea dute helburu. Bi motatakoak izan daitezke:

BARNE-ARIGUNEA

Entitate bateko ohiko funtzionamendurako taldeetan (sailak, zuzendaritzak, kirol-taldeak, lan-taldeak...) kide guztiek euskara ulertzeaz gain, gutxienez kideen % 80 **ahobizi** edo **belarriprest** izateko prest dago Euskaraldian. **Erabaki kolektiboa hartuko dute**. Gutxienez bi lagunez osatua dago.

KANPO-ARIGUNEA

Entitatean herritarrekiko harreman espazioetan (harreran, telefonoan, kutxetan, barran...) dauden pertsonak herritarrekin osatutako arigunea da. **Espazio horietan beti egongo da belarriprest** edo **ahobizi** den kide bat, gutxienez, herritarraren hizkuntza aukera bermatzeko.

% 100^{ek}

EUSKARAZ
ULERTU
BEHAR DU

GUTXIENEZ

% 80

ADOS EGON
BEHAR DA

GURE ENTITATEAN ARIGUNERIK EZ BADAGO?

Ariguneak sortzeko bide bat has zaitezkete, neurriak hartuz, **hurrengo Euskaraldi batean** ariguneak egoteko zuen entitatean. Adibidez:

- *Euskaraz ulertzen ez dutenei euskara ikasteko baliabideak eskaini.*
- *Euskaraz ulertzen duten kideak kanpo ariguneak sortzeko bideratu.*
- *Euskaraz hitz egin nahi duenaren eta erdizka ulertzen duenaren arteko harreman komunikatiboari irtenbide eman: mintza-praktika tartekak sustatu, ohiko esaldi batzuk ikasi, euskara eta erdara tartekatzeko proposatu (Ulerrizketa metodologia).*

Euskaraldi honetan, nahiz eta kide guztiek euskaraz ez ulertu talde batean, **euskaraz ulertzen duten kideei proposatu ahal diezue belarriprest eta ahobizi izateko**, eta horiek aktibatzeko neurriak hartu: biko harremanak sustatu, bileretan hizkuntza kudeaketa berriak adostu (xuxurlariak, elebiduna...), hizkuntzen pedagogia egin, ulertzen dutenak identifikatu.



ZER LORTU NAHI DUGU?

Hizkuntza-praktika berriak normalizatzea entitateetan, hauexek:

ARIGUNEA

1
ULERTZEN DUENARI
EUSKARAZ
EGITEA NAHIZ ETA
SOLASKIDEAK
ERDARAZ ERANTZUN.

2
EZEZAGUNEI
LEHENENGO HITZAK
EUSKARAZ EGITEA

3
ERDALDUNAK ETA
EUSKALDUNAK
DAUDEN TALDEETAN,
ULERTZEN
DUTENEKIN
EUSKARAZ EGITEA
NORMALA IZATEA.

Empresas, asociaciones, establecimientos, instituciones públicas... cualquier entidad tiene la responsabilidad de garantizar la igualdad lingüística en su funcionamiento interno o hacia la ciudadanía. Estas entidades, para dar facilidades a quienes son Ahobizi o Belarriprest, pueden responsabilizarse de llevar a cabo el proceso de organizar Euskaraldia dentro de su entidad.

Son 7 los pasos que deberían dar.

Euskaraldia es un ejercicio social que pretende adecuar los hábitos lingüísticos hacia el euskera.

Si quieres llevar a cabo el proceso de organizar Euskaraldia en tu entidad, puedes ponerte en contacto con la organización de Euskaraldia en la Llanada. También tienes más información en la página web: <https://lautada.euskaraldia.eus/entidad/>

Lautadako
Euskararen
Komunitatea
Lautadako 8 udalak
Lautadako Kuadrilla

www.lautada.euskaraldia.eus

605 29 09 51



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

Vital
FUNDACIÓN - FUNDAZIOA